

Amaitu da muralismo esparruan lanean jardun duten emakumeen lana

- Martxoan hasi zen programa, eta zortzi emakumek hartu dute parte
- Sei hilabeteren ostean, hamar eremu edo horma margotu dituzte guztira

Andoainen, 24-10-02.- Martxoan jarri zen abian muralismoaren alorrean iraupen luzeko langabeak prestatzea eta kontratatzea helburu zuen programa. Sei hilabete igaro dira ordutik eta joan den astean amaitu zuen ibilbidea. Zortzi emakumek parte hartu dute "Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektuak. Lehentasunezko arretako kolektiboak" programan (Lanbidek sustatua eta Europako Gizarte Funtzak finantzatua).

Programaren lehen astean, aipatutako emakumeek muralismoaren arloko prestakuntza jaso zuten, eta hurrengo asteetan, teoriatik praktikara eramanez ikasitakoa herriko hainbat tokitan. Guztira hamar gunek margotu dituzte:

- Makaldegiko elektrizitate-etxola
- Ludoteka berria (barruan eta kanpoan)
- Ondarreta Herri Eskolako etxola
- Goiburuko frontoia berreskuratzea
- Katuentzako olana
- KZgunearen fatxada
- Gazte-lokalaren barrualdea
- Isidro Langara zubiko horma-irudia
- 3X3 kantxa, Leizaur parkean
- Zeramika-tailerraren barrualdea

Era berean, programan zehar talde-orientazioko ekintzak egin dira, eta parte-hartzaileen banakako laguntza izan da etorkizunean laneratzen laguntzeko. Gainera, programa bera garatzen duten beste herri batzuetako kideekin ere esperientziak partekatu dituzte, Arrigorriagara (Bizkaia) joateko aukera izan baitzuten, eta bertako bisita ere izan zuten irailean Andoainen bertan.

Aurtengo egitaraua alkatearen eskutik jasotako diploma banaketarekin amaitu da; Udalak dagoeneko aurreratu du antolaketa lanetan ari dela edizio berri baterako.